

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagastia sagarrez lepo daude

Hasi dira sagarrak biltzen sagardo denboraldi berrirako

Noaue Aldizkaria 2019-09-26 16:18



Euskal Sagardoa jatorri izenetik aditzera eman dutenez, sagarra aurreratu xamar etorri da aurten eta horren ondorioz, irailean sagarra biltzen hasi dira sagasti askotan. Hiru herrialdetako homologatutako 250 sagasti inguruko sagarra erabiliko da Euskal Sagardoa egiteko eta guztira 5 bat milioi kilo biltzea espero da. Horien artean, Usurbilgo zenbait sagardogile.

Aurten sagar urtea aurreikusi zitekeen eta neguko, udaberriko eta udarako giroak, uza handia eragin du. Sagar asko da beraz, sagastirik gehienetan, eta udan euri dezente egin duenez, ale nahiko handia eta sana. Aurreko urtearekin alderatuta, azukre gutxiago dakar sagarrak orokorrean, eta beraz, iaz baino alkohol gutxiago ekarriko du sagardoak.

Garai batean "Pilarikatan" hasten omen zen sagardo egiteko prozesua, baina heldutasuna aurreratu egin da azken urteetan eta gaur egun iraila eta urria dira bertako sagarrez sagardoa egiteko hilabete nagusiak. Sagastietako lanean buru belarri ari dira sagarzaleak eta horren eraginez, sagarra behar den moduan eta behar den puntuan biltzea lortzen ari dira. Horrez gain, uza orekatuagoak biltzea ere badu helburu lanketa horrek, etorkizunean sagarra urtero izatea lortu ahal izateko.

Aurten sagar urtea aurreikusi zitekeen eta neguko, udaberriko eta udarako giroak, uza handia eragin du. Sagar asko da beraz, sagastirik gehienetan, eta udan euri dezente egin duenez, ale nahiko handia eta sana. Aurreko urtearekin alderatuta, azukre gutxiago dakar sagarrak orokorrean, eta beraz, iaz baino alkohol gutxiago ekarriko du sagardoak. Garai batean "Pilarikatan" hasten omen zen sagardo egiteko prozesua, baina heldutasuna aurreratu egin da azken urteetan eta gaur egun iraila eta urria dira bertako sagarrez sagardoa egiteko hilabete nagusiak. Sagastietako lanean buru belarri ari dira sagarzaleak eta horren eraginez, sagarra behar den moduan eta behar den puntuan biltzea lortzen ari dira. Horrez gain, uza orekatuagoak biltzea ere badu helburu lanketa horrek, etorkizunean sagarra urtero izatea lortu ahal izateko.



Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil

Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZZARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)